

2007KO MAIATZAREN 16KO **TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zazpiko maiatzaren hamaseian, iluntzeko zazpietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi eta Arantxa Zumelaga Agirre.

Igor Sarriegi Zumarraga zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak, bilkurari hasiera eman eta esaten du Eguneko Gai Zerrendatik kanpo Lazkaoko Udalak pilatutako dituen hainbat material herritarren artean banatzeko arauak onartzeari buruzko gaia presakazko izaeraz tratatzea proposatzen duela.

Tokiko Gobernu Batzarrera bertaratutako guztiek ontzat ematen dute.

I.- AURREKO AKTA.-

Jarraian bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2007ko martxoaren 14an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2007ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 4 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, BERROGEITA HEMERETZI MILA BEDERATZIEHUN ETA ZORTZI EURO ETA HIRUROGEITA HAMASEI ZENTIMO (59.908,76,-)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 99 zbk.dun esped.: zerbitzutik baja 2007ko martxoaren 11n, heriotzagatik.

- 25 zbk.dun esped.: zerbitzutik baja 2007ko apirilaren 30ean, osasun egoeraren hobe-kuntzagatik.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 705 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairua ordaintzeko hilean 162,40 € eta mantenimendurako hilean 34,30 €, apiriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %56a da.

Telealarma zerbitzua.-

- 99 zbk.dun esped.: zerbitzutik baja 2007ko martxoaren 10ean, heriotzagatik.

- 812 zbk.dun esped.: telealarma instalaziorako 37,17 € eta mantenimendu gastuetarako urtean 39,60 € ematea. Ematen zaiona zerbitzu kostuaren %50a da.

Erretiratu eta pentsiodun elkarteari dirulaguntza.-

Orobione erretiratu eta pentsiodun elkarteari 2.404,00 € ematea jardueren garapenerako.

Minusbaliatuen garraioa.-

Ordiziako Gureak Tailerretara garraioa ordaintzeko, 2007 urterako, honako dirulaguntza hauek ematea:

- 411 zbk.dun esped.: 389,62€/urtean // 35,42€/hilean abuztua izan ezik.

- 252 zbk.dun esped.: 389,62€/urtean // 35,42€/hilean abuztua izan ezik.

- 188 zbk.dun esped.: 389,62€/urtean // 35,42€/hilean abuztua izan ezik.

- 107 zbk.dun esped.: 335,47€/urtean // 30,47€/hilean abuztua izan ezik.

Ifarra-Hegoa Lankidetzeta Programa.-

2007 urteko Ifarra-Hegoa Lankidetzeta Programan egon diren eskaerak aztertu ondoren, honako dirulaguntza hauek onartzea:

<u>ESKATZAILEA</u>	<u>PROIEKTUA</u>	<u>DIRULAGUNTZA</u>
Prelatura de Cametá	Cametá, Brasilen, "Buruzagi kristauen eskola" proiekturako.	6.300,00 €
Karitas	Inan, Beninen, "alfabetatze eta giza ekin-tzetan laguntzeko haur eta gazteentzat zentro bat eraikitzea" proiekturako.	9.800,00 €
Donostiako Elizbarrutiko Misio Ordezkaritza	Rwandan, "Masakako edateko uraren hornikuntza sistemaren berreskuratzea" proiekturako.	9.800,00 €
Congregación de la misión, Padres Paules	La Barquita, Los Mina, Santo Domingo, Republica Dominicana. "Margarita Naseau lehen mailako eskola" proiekturako.	6.300,00 €
Mundo solidario helburu	Diriamba. Carazo. Nikaragua. "Gazte ezin-duen gizarteratzea eta irisgarritasuna" proiekturako.	6.300,00 €
Monja Zistertarrak	Costa Rica. "San Ambrosio eskola" proi-	6.300,00 €

	ekturako	
Saharako errefuxiatu kanpamentuak		3.078,00 €
Euskadiko Frente Polisiarioren Ordezkaritza	"Oporrak bakean 2007" proiekturako.	2.250,00

San Benito Ikastolari dirulaguntza.-

San Benito Ikastolari 964,00 €ko dirulaguntza ematea Osasunkume programaren barnean egingo den festa eta hitzaldietarako.

IV.- KIROLETAKO LAGUNTZA.-

Ekain Irizarrek, Solasten Lazkao Aretoko futbol taldeko ordezkari gisa, datozen maiatzaren 26 eta ekainak 2an Lazkaon areto futboleko 2. mailako igoera postuak erabakitzeko play-offak jokatzeko eginiko dirulaguntza eskaerak ikusirik, txapelketa hau Lazkaon jokatzeko interesgarria ikusten delarik eta herriko areto futbol taldearen maila igoera errazteko balioko duelakoan, Kirol Batzordetik Tokiko Gobernu Batzarrari 300 €tako dirulaguntza emateko proposamena egiten da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, proposamena onartu egiten du.

V.- UDAKO KIROL KANPAINA.-

Kirol Batzordetik Udaoko Kirol Kanpaina 2007ko egitasmoa aurkezten da. Kanpaina hau ekainaren 25etik uztailaren 20ra bitartean burutuko da. Kanpaina honen aurrekontua hamabi mila lauhun eta laurogeita hamalau eurotakoa (12.494 €) da eta ikastaroen dirusarrerak eta Foru Aldundiko dirulaguntza kontutan izanda aurrikusitako defizita hiru mila hiruehun eta hirurogeita hamar (3.370 €) eurotakoa da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, egitasmoa, bere espedientean dagoena, aztertu ondoren, Udaoko Kirol Kanpaina 2007 hau onartzea erabakitzen du.

VI.- HAINBAT MATERIALE HERRITARREN ARTEAN BANATZEKO ARAUAK.-

Udalarenak edo bere laguntzarekin egindako hainbat CD, DVD eta liburu daude udaletxean pilatuta eta horrela egotean zaharkituta gelditzeko arriskua besterik ez dutela eta, Kultura Batzordetik materiale guzti hau banatzeko herritarrei eskeintza berezia egitea planteatzen da, materiale bakoitzak berez zuen prezioaz alderatu ezker, askoz ere prezio baxuagoan. Bestalde eta banaketa ahalik eta herritar gehiengana irits dadin, herrian erroldatutakoei eta bakoitzari gehienez ere materiale bakoitzetik bi ale ematea planteatzen da.

Beraz Tokiko Gobernu Batzarrari honako arau hauek onartzea proposatzen zaio: Udaletxean pilatuta dauden hainbat materiale herritarren artean banatzeko prezioak eta arauak:

- Lazkaoko historia, faszikulutan bilduta, euskarazko karpeta

6 €

- Lazkaoko historia, faszikulutan bilduta, gaztelerazko karpeta	6 €
- Lazkanotarren jauregiko belaunaldien historia	4 €
- Lazkao Txiki bertsolariari buruzko CDa	3 €
- Lazkao herriari buruzko DVDa	3 €

Eskeintza berezi hau Lazkaon erroldatuta daudenei egiten zaie.

Herritar bakoitzak, hasieran behintzat, materiale mota bakoitzeko 2 ale hartu ahal izango ditu gehienez ere. Denbora igaro hala, eskakizunak gutxi direla ikusiko balitz, ale gehiago eman ahal izango dira.

Materiale hau Lazkaoko Udalaren bulegoetan eros ahal izango da.

Eskeintza berezi hau materialak agortu artekoa izango da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, proposamena onartu egiten du.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.